



ORKOIENGO IKASTETXE PUBLIKOAK 2023-2024 IKASTURTERAKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Orkoiengo Udalak Orkoiengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztiei dirulaguntzak ematea sustatzen du, norgehiagoka-erregimenean, deialdi honetarako zehazten den ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak egiteko hezkuntza-lana sustatzen badute.

Deialdi honetan aurreikusi ez denerako, Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko dira.

1. artikulua. Aurrekontua.

Deialdi honek 12.000 euroko gehieneko aurrekontu-zuzkidura izango du, 6.000 euro Orkoiengo Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen artean banatzeko, eta 6.000 euro hezkuntza-lana sustatzen duten Orkoiengo ikastetxeetako gurasoen elkarleen artean banatzeko. Zenbateko hori 3269 4820000 aurrekontu-aplikazioaren kontura ordainduko da (eskolaz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak).

2. artikulua. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak, helburua eta erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honen xedea eta helburua da Orkoiengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek eta Orkoiengo ikastetxeetako guraso elkarreek ikasturtean zehar jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko dirulaguntzak ematea, irakaskuntzaren kalitatea hobetzerako bideratutako ekimenei babes emateko. Hitzaldiak edo tailerrak ere diruz lagunduko dira.

Dirulaguntza honen xedea deialdi honetako 4. artikuluko helburu eta edukietara egokitu beharko da.

Deialdi honetako interesdunen betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Helburua betetzea, jarduera egitea eta emandako dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartzea.

b) Emandako dirulaguntza ematea eragin duten gastuak ordaintzeko bakarrik erabiltzea.

c) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea dakarren helburua bete dela ere.

d) Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapeneko eta kontroleko beste edozein jarduketa ere, eta udal-artxiboetan ez dauden aurreko jarduketetan eskatzen zaien informazio guztia ematea.

e) Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.

f) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean erakunde onuradunei aplikagarri zaien merkataritza eta sektore-legeriak eskatutako baldintzetan, bai eta deialdi honek edo dirulaguntza emateko



ebazpenak eska ditzakeen kontabilitate-egoera eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

g) Jasotako dirulaguntza-funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeenean, legeak ezartzen duenaren arabera.

h) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde- edo propaganda-hedabideetan honako testu hau eranstea: *Laguntzailea: Orkoiengo Udala*.

i) Jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan hizkuntza eta irudia modu sexistan ez erabiltzea.

j) Diruz lagundutako jardueren garapenean egindako aldaketa nabarmenen berri ematea Orkoiengo Udalari.

k) Jasotako funtsak itzultzea, betiere gastua behar bezala justifikatu ez bada, edo eman ziren xederako erabili ez badira.

l) Jarduera bakoitza egiteagatik izandako diru-sarreraren eta gastuen fakturak eta bestelako egiaztagiriak aurkeztea. Fakturak indarrean dagoen legeriaren arabera jaulki beharko dira.

3. artikulua. Erakunde eskatzaileen betekizunak.

Orkoiengo Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek eta Orkoiengo ikastetxeetako Guraso Elkarateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta egoitza Orkoien badute eta baldintza orokorrak betetzen badituzte eta legeak ezartzen dituen debeku-arrazoiak batean sartuta ez badaude.

Deialdi honetan parte hartzetik kanpo geratzen dira, berariaz, honako hauek:

a) Irabazi-asmoa duten enpresak edo bestelako erakundeak.

b) Aurreko bi ekitaldietan Orkoiengo Udalarekiko betebeharrak bete ez dituzten edo urratu dituzten erakundeak, dirulaguntza jaso dutelako edo lankidetzat-hitzarmenak sinatu dituztelako.

c) Oro har, aurreko puntuan zehaztutako oinarrizko baldintzaren bat betetzen ez dutenak.

Ez da beharrezkoa izango udal artxiboetan dauden eta azken lau urteetan aldatu ez diren alderdiak agiri bidez justifikatzea, oinarri hauetan berariaz eskatzen ez badira.

4. artikulua. Diruz lagundutako jarduerak bete beharreko baldintzak.

Orkoiengo Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek egiten dituzten curriculum-jardueren eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak diruz lagunduko dira, baita Orkoiengo ikastetxeetako guraso elkaratek udalerrian hezkuntza-lana sustatzeko egiten dituzten jarduerak ere.

5. artikulua. Deialdiaren publizitatea.

Deialdi hori iragartzeko, iragarkia argitaratuko da udal-taulan, eta dirulaguntza jasoko duten ikastetxeei eta elkarteei jakinaraziko zaie, bai eta BDNSn ere.



6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Eskabideak I. eranskinean aurreikusitako eskabide-orriaren bidez egin beharko dira, eskatzaileak sinatuta. Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen IFKren fotokopia.

b) Dagokion ikasturteko eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien proiektua, II. eranskinean aurreikusitako fitxa-ereduaren arabera.

d) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuei xede bererako egindako edo egiteko dauden dirulaguntzen zerrenda, hala badagokio. Zerrenda horretan, eskatutako zenbatekoa, erakundeen izena eta emandako zenbatekoa zehaztu beharko dira, baldin eta ebazpena eman bada, edo aurreikusitako zenbatekoa, aurreko urtekoa kontuan hartuta, edo elkargoaren ordezkariaren zinpeko aitortpena, deialdi honen bidez diruz laguntzen diren jarduera berberetarako beste dirulaguntzarik jaso ez dutela egiaztatzen duena, honekin batera doan ereduaren arabera.

e) Kasu guztietan Orkoien errolatutako ikasleen zerrenda aurkeztuko da.

Dokumentu guztiak originalak edo konpultsatuak izango dira.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, iragarkia udaleko iragarki-taulan argitaratzen denetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio hamar egun naturaleko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

Eskaerak Orkoien Udalaren erregistro elektroniko orokorrean aurkeztu beharko dira <https://orkoien.sedelectronica.es/>

7. artikulua. Dirulaguntzak bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak.

Dirulaguntzen prozedura bideratzeko organo eskuduna Orkoien Udaleko Hezkuntza Arloa izango da, eta ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Ebazpen-proposamena instrukzio-organismoak egingo du, espediente eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio.

Balorazio Batzordea Hezkuntza Arloko zinegotzi arduradunak, Kultura teknikariak eta Udal Kontuhartzaileak osatuko dute.

Alkatetzak ebartziko du dirulaguntzak emateko prozedura.

8. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Dirulaguntzaren eskaera aurkeztu den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango du erakunde eskatzaileak.



Administrazio-bidea amaituko duen emakida-ebazpena 39/2015 Legean idatzitakoarekin bat etorri jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, eta Orkoien Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da.

9. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta eskabideak baloratzeko irizpide objektiboak.

Udalak 12.000 euro bideratuko ditu gehienez dirulaguntza horiek emateko, eta honela banatuko da:

- Lehen taldea: Orkoien Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (6.000 euro)
- Bigarren taldea: Orkoien ikastetxeetako guraso elkarteak eta hezkuntza-lana sustatzen dutenak (6.000 euro).

Ikastetxe bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide eta proportzio hauek aplikatuko dira:

- Balorazio Batzordeak eskabideak baloratuko ditu, aurkeztutako proposamenen izaera hezitzailea eta ikastetxeetako curriculum-jardueretik osagarritasuna kontuan hartuta. Gehieneko diru-zuzkiduraren % 50 jardura osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa aurkeztu duten ikastetxe eta elkarten artean banatuko da, Batzordeak proiektuak baloratu ondoren diruz laguntzeko modukotzat jotzen duen aurrekontuaren arabera.

- Diru-zuzkiduraren gainerako % 50 ikastetxe bakoitzeko Orkoien erroldatutako ikasle-kopuruaren proportzioan banatuko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, hala badagokio, ezin izango du gainditu aurrekontuan jasotako guztizko zenbatekoa.

Araudi honen bidez onartutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntzarekin, eta ezin izango da, inola ere, gainfinantzaketarik egon.

10. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten dioten gastuak izango dira. Diruz lagundu daitezkeen gastuen prestazio-kostua ez da inola ere izango merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena. Ez dira dirulaguntzaren gastu justifikagarritzat hartuko deialdiaren iragarkian ezarritako jardura gauzatzeko alditik kanpo egiten direnak.

Ez dira diruz lagunduko kanpamenduak, ikasketa-bidaia, asteak eta, oro har, lanaldi bat baino gehiago irauten duten bidaia.

Inola ere ez dira diruz lagunduko mantenu-gastuak (jaiak, bazkariak, afariak, luntxa, etab.) eta, oro har, hezkuntza-eduki espezifikorik ez duten gastu guztiak.

Inola ere ez da diruz lagunduko material inbentariagarria (ordenagailuak, iratiak, altzariak, bibliografia-funtsak, etab.).

11. artikulua. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.



Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, beste erakunde edo instituzio publiko edo pribatu batzuen ondasunetatik datozen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango du gainditu egindako gastuaren guztizko kostua.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak oinarri hauen arabera aldatzen badira, eta, nolanahi ere, deialdi honetan baimendutako kasuetatik kanpo beste ekarpen batzuk lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak aurrekontu-baliabideen mende egongo dira. Balorazioaren ondorioz, Orkoien Udalaren Osoko Bilkurak 2023rako aurrekontuetan onartutako aurrekontu-erabilgarritasuna nahikoa ez bada, banaketa proportzionaleko sistema erabiliko da, indize zuzentzaile bat aplikatuta.

12. artikulua. Diruz lagundutako jardueraren bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

Deialdi honetako dirulaguntza bateragarria da administrazio, erakunde edo pertsona batek helburu bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

13. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea.

Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

Dirulaguntzari buruzko ebazpena hartu ondoren, eskatzaileei jakinaraziko zaie eta kontura aurreratuko da emandako dirulaguntzaren % 70aren ordainketa.

Gainerako % 30a erakunde onuradunak dirulaguntzan ezarritako baldintzak betetzen dituela justifikatu ondoren ordainduko da, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

a) Idazkia, udal erregistroan sartzekoa, dirulaguntza ordaintzeko eskatuz. Bertan, onuradunaren izena eta sozietatearen izena, IFK eta onuradunak banketxean duen kontu korrontearen zenbakia jasoko dira, III. eranskineko ereduaren arabera.

b) Egindako jardueraren eta gastuen memoria zehatza, lortutako emaitzak adierazita, IV. eranskineko ereduaren arabera.

c) Jardueraren ondorioz sortutako gastuen jatorrizko egiaztagirak (edo kopia konpultsatuak), emandako zenbatekoaren guztizko zenbatekoraino.

Agiri horiek Orkoien Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Udal Erregistroan, eta aurkezteko azken eguna 2024ko irailaren 30a izango da.

Jarduera beste erakunde publiko edo pribaturen batek beste laguntza edo baliabide batzuekin batera finantzatu badu, justifikazioaren zati gisa egiaztatu beharko da funts horiek diruz lagundutako jardueretan bidezkoak direla eta nola erabili diren.

Aurkeztutako justifikazio-agiri guztiak dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikokoak izan beharko dira.

Orkoien Udalak ofizioz kitatu ahal izango ditu, aldeztu aurretik, dirulaguntzen onuradunek berarekin dituzten zorrak, dirulaguntza horiek konpentsatuz, erakunde onuradunak harekin duen zorraren zenbatekoan.



Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada, edo justifikazioa nahikoa ez bada, dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharko da, ez-betetze maila eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuta.

Emandako laguntzen justifikazioa aurkezteko gehieneko epea deialdiaren iragarkian ezarritakoa izango da. Justifikazioak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari hamar egun naturaleko gehieneko epe luzaezinean zuzentzeko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, 39/2015 Legean aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

14. artikulua. Laguntzak emateko erabakia aldatzea.

Laguntzak emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolanchi ere, aurretik jakinarazi ez diren beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik dirulaguntzak edo laguntzak jasotzen badira, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

15. artikulua. Jasotako zenbatekoak itzultzea.

Onuradunak jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko ditu, eta berandutze-interesa eskatuko du dirulaguntzaren laguntza jaso duen unetik, honako kasu hauetan:

- a) Justifikatzeko betebeharren bat ez betetzea.
- b) Laguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe edo deialdi honetako 6. oinarrian eskatzen diren agiri bidezko justifikazioak edo diru-sarrera eta gastuen egiaztatiriak faltututa.
- c) Laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzea.

16. artikulua. Datuen babesa.

Pertsona interesdunek ematen dituzten datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Orkoien Udal da. Tratamenduaren helburua laguntzak deialdiaren oinarrien arabera kudeatzea da.

Tratamendua legitimatzen duen oinarria interes publikoaren alde egindako misio bat betetzea da (2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. e artikulua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrekin bat).

Ez da datu pertsonalen jakinarazpenik egingo, salbu eta Udalak legezko betebeharrak bati erantzun behar badi.

Helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira datuak, eta, ondoren, deialdiaren ondoriozko erantzukizunei erantzuteko. Apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea, Artxibo eta Dokumentuei buruzkoa, eta ekainaren 14ko 51/2016 Foru Agindua aplikatuko dira.

Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, lekualdatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak erabil ditzakete, lege aurreikusitako kasuetan. Horretarako, udaleko bulegoetara jo dezakete, eta bertan emango dizkizute hori egiteko ereduak edo delegadoprotecciondatos@orkoien.com datuak babesteko ordezkariaren helbidera.



Datuen babesari buruzko informazio gehiago gardentasunaren atarian, udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

17. artikulua. Dirulaguntzak arautzen dituen araudia.

Dirulaguntzaren deialdi hau agiri honetan jasotako oinarriek eta bertan aurreikusitakoek arautuko dute, bai eta honako araudi honetan ezarritakoak ere:

- a) Nafarroako Foru Administrazioari buruzko Foru Legea.
- b) Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.
- c) Estatuko araudia. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

18. artikulua. Errekurtsoen araubidea.

Deialdi honen, oinarrien eta horiek betetzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, nahi izanez gero, honako errekurtso hauek jarri ahal izango dira:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintza egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.



I. ERANSKINA Eskabidea

Eskatzailearen datuak:

Jauna/andrea:

NAN:

Helbidea:

Kalea:

Telefonoa:

Mugikorra:

E-maila:

Norberaren izenean edo ordezkari gisa (ezabatu ez dagokiona)

Jauna/andrea:

NAN:

Helbidea:

Kalea:

Telefonoa:

Mugikorra:

E-maila:

AZALTZEN DU:

☐ Deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

☐ Ez dagoela inolako debeku-kausatan sartuta.

☐ Ez duela dirulaguntzarik jaso beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuetatik dirulaguntza eskatzen den jarduerak egiteko.

ESKATZEN DU: Beharrezko izapideak egin ondoren, onartutako deialdiaren arabera dagokion dirulaguntza ematea.

Orkoien,..... (e) ko..... aren..... (a).

SINADURA



DATUEN BABESA: Oinarrien 16. oinarrian adierazitakoaren arabera.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (ESKABIDEA)

[] IFKren fotokopia.

[] Dagokion ikasturteko eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien proiektua, II. eranskinean aurreikusitako fitxa-ereduaren arabera.

[] Hala badagokio, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei xede bererako egindako edo egiteko dauden dirulaguntzen eskabideen zerrenda, eskatutako zenbatekoa, erakundeen izena eta emandako zenbatekoa zehaztuta, ebazpena dagoeneko emanda badago, edo aurreikusitako zenbatekoa, aurreko urtekoa kontuan hartuta.

[] Orkoienen erroldatutako ikasleen zerrenda



II. ERANSKINA

JARDUEREN PROGRAMA (ESKAERA)

Dagokion ikasturterako programatutako jarduera bakoitzeko fitxa bat betetzea.

• Erakunde eskatzailea:
• Jardueraren izena eta deskribapena:
• Datak, ordutegiak eta lekua:
• Jarduera nori zuzenduta dagoen (parte-hartzaileen kopurua):
• Honako hauek biltzen dituen programa: Helburuak (Ikasgelako programazioarekiko lotura)
• AURREIKUSITAKO AURREKONTUA:



III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIOA

Eskatzailearen datuak:

Jauna/andrea:

NAN:

Helbidea:

Kalea:

Telefona:

Mugikorra:

E-maila:

Norberaren izenean edo ordezkari gisa (ezabatu ez dagokiona)

Jauna/andrea:

NAN:

Helbidea:

Kalea:

Telefona:

Mugikorra:

E-maila:

Banku-kontu zenbakia (20 digitu):

AZALTZEN DU:

[] Deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

[] Erantsitako diruz lagundutako jardueren egiaztatutako jatorrizko dokumentuak dira, zerbitzu-emaeleak edo hornitzaileak emandakoak, eta diruz lagundutako jardueren gastuei dagozkie.

[] Ez duela dirulaguntzarik jaso beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuetatik dirulaguntza eskatzen den jarduerak egiteko.

ESKATZEN DU: Beharrezko izapideak egin ondoren, onartutako deialdiaren arabera dagokion dirulaguntza ordain dadila.

Orkoien,..... (e) ko..... aren..... (a).

SINADURA



DATUEN BABESA: Oinarrien 16. oinarrian adierazitakoaren arabera

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (JUSTIFIKAZIOA)

Dagokion ikasturteko eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien memoria, IV. eranskinean aurreikusitako fitxa-ereduaren arabera.

Dirulaguntzaren xede den gastuaren jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.

Hala badagokio, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei xede bererako egindako edo egiteko dauden dirulaguntzen eskabideen zerrenda, eskatutako zenbatekoa, erakundeen izena eta emandako zenbatekoa zehaztuta, ebazpena dagoeneko emanda badu, edo aurreikusitako zenbatekoa, aurreko urtekoa kontuan hartuta.



IV. ERANSKINA

JARDUEREN MEMORIA (JUSTIFIKAZIOA)

Dagokion ikasturterako justifikatzen den jarduera bakoitzeko fitxa bat betetzea.

Erakunde eskatzailea:
Jardueraren izena eta deskribapena:
Datak, ordutegiak eta lekua:
Jarduera nori zuzenduta dagoen (parte-hartzaileen kopurua)
Programa honetan honako hauek sartzen dira: Helburuen ebaluazioa. (Aldaketarik izan bada, horri buruzko azalpena eman behar da)
JUSTIFIKATUTAKO AURREKONTUA. Fakturak erantsi
DATUEN BABESA: Oinarrien 16. oinarrian adierazitakoaren arabera